

Arrigorriagako Udalak '2.0 Liburutegia' ekimena jarri du abian

BILBO, 1 (EUROPA PRESS) Arrigorriagako Udalak (Bizkaia) '2.0 Liburutegia' jarri du martxan Abusu auzoan, 'Dena, klik batekin. Etxetik' goiburupean. Helburua da Abusu-La Peñako liburutegiak webgunearen bitartez eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutaraztea, bai eta Arrigorriagako auzo honetako ikastetxeetako ikasleen artean jarrera kritikoago eta sortzaileagoak sustatzea ere.

“Abusuko liburutegiak '2.0 Liburutegia' kanpaina abiarazi du, Udalean seguru gaudelako gure ikasleak interneten munduan erraztasunez moldatzen hasi behar direla, eskaintzen dituen aukeretako edozeinetan”, adierazi du Udaleko Kultura zinegotzi Toñi Fernandez Petitek.

Batez ere gazteenei zuzenduta dagoela nabarmendu du, beraiek erabiltzen baitituzte sarritan internet eta gizarte-sareak. Horrela, <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/abusu/blogak>, hasteko, ikasleek Abusun egindako bideoak aurkeztuko ditu. Bideo horiek Youtube edo Facebook bitartez ere ikus daitezke liburutegian.

Interneten inguruko jarduera indartzeko, Abusuko liburutegiak 'Irakurle' izeneko irakurketa birtualerako kluba ere sortu du. Bilerak hilean behin egiten dira, eta bertan, parte-hartzaileek hiru liburu aurkezten dituzte, oharrekin. Egitekoa sarearen bitartez foro ireki bat sortzea da.

2.0 mezua hedatzeko, Arrigorriagako liburutegiek 6.000 orri-markatzaile banatuko dituzte ikastetxeetan. Orri-markatzaileek interneteko hodeien itxura daukate, webgunean datuak biltegiratzeko sistemen itxura, alegia. Liburuak, pelikulak edo musika CDak katalogoan bilatzea, erreserbak egitea edo mailegu baten epea luzatzea dira Arrigorriagako liburutegian gero eta erabiltzaile gehiagok internet bidez erabiltzen dituzten eta banatuko diren orri-markatzaileetan informazio gisa sartuta dauden prestazioak.

'ESKOLA 2.0'

Teknologia berrien erabileraren bitartez irakurzaletasuna dinamizatzeko helburuarekin, irakurketa klubak joan den ikasturtean abian jarritako 'Eskola 2.0' programa indartuko du. Ekimen honi esker, Abusuko ikastetxeetako ikasleek netbook bat daukate ikasgelan.

Halaber, nabarmendu beharra dago Abusuko liburutegiak auzoko ikastetxeekin kolaboratzen duela aldian-aldian, batetik, irakurzaletasuna pizteko kanpainak bultzatuz, besteak beste, 'Nik ere irakurtzen dut' edo 'Hartu liburu bat', eta, bestetik, Abusu Sarean elkaratearen 'Abusu, auzo irakurlea' batzordearen bitartez.